



AUZITEGI GORENAK AKORDIO TRANSAKZIONALA HOMOLOGATU DU

2014ko urrian Irakaskuntza Pribatuko Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan ordezkariak dugun sindikatu guztiek eta patronalek gatazka kolektiboa konpontzeko eta hitzarmena bere osotasunean berreskuratzen zuen akordioa sinatu genuen. Akordioa Auzitegi Gorenean aurkeztu genuen eta orain akordioa homologatu du eta bere lege-balioa eman dio.

Horren ondorioz, patronalek sartutako helegitea bertan behera geratzen da eta 2009ko EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen lan hitzarmena indarrean jarriko da – lansarien taula 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ezarriko dira- bere osotasunean. Halaber, urrian sinatutako akordioa indarrean sartuko da eta , beraz :

- Hezkuntza Laguntzako Espezialistak publikoko funtzio bera duten langileekiko %95ean homologatzen dira.
- Hezkuntza Laguntzako espezialistak, Haur Hezkuntzako 1.go zikloko teji eta eta laguntzaileak eta HH, LH eta DBHko instruktore /hezitzaileak, 25000€ baino gutxiago kobratzeagatik, 2013ko uztailaren 8tik aurrerako zorra ekaineko nominan kobratuko dute. Hezkuntza Laguntzako espezialisten kasuan publikoko langileekiko %95 ekiparazioaren ondorioz 2105ko lansari taulak aldatu dira eta horrek sortaraziko zorra ere kobratuko dute.
- Haur Hezkuntzako 1.go zikloko maisu-maistrek ere antzeko zorra kobratuko dute bere lansaria murriztu zutelako akordioan jasotako taulek ezartzen zutena baino gehiago .
- Hitzarmenaren ultraktibitatea hurrengo sinatu bitartean mantenduko da
- Zailtasun ekonomikoak bereziak dituzten ikastetxeen kasuan akordioak jasotzen duen prozedura bete beharko dute; langileen adostasuna beharko da eta derrigorrezko arbitrajea eragotzi da.

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Joaquin Beunza 4-6 behea	31014 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org



Bestetik ba dago beste kontu batzuen inguruko informazioa

Birkokatze poltsa

Maiatzaren 8tik aurrea aktibatu egingo da Birkokatze poltsa kudeatzeko tresna informatikoa eta bertan egoteko eskubidea duten langileek tramitea egiten hasi daitezke poltsan izena emateko.

Sartzeko eskubidea izango dute itundutako ikasgela kopurua galdu duten edo lanpostuak kitatu dituzten (irakasle/gela erratio gainditzen dutenak) ikastetxeetan soberan geratu diren langileek soil-soilik.

steilas-ek beste behin eskatu zuen bere lanpostua beste arrazoiengatik galdu duten eta urte bete edo gehiago lan egin duten langileek ere poltsan sartzeko eskubidea izan dezaten: zatikako jubilatugatiko errelebo kontratudunak, IRALE, GARATU edo bestelako prestakuntza ikastaroetan ordezkokoak , nahitaezko edo borondatezko eszedentzia hartu duten langileen ordezkokoak.

KE eta ELAk ez zuten gure eskaera onartu poltsaren xedea soberakinak birkokatzea omen delako, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa har dezan lanpostu hauen finantziazioan. .

steilas-ek uste du erabaki honek Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan lan-ibilbide luzea daukaten langileei poltsan sartzeko aukera kentzen zaiela .

Hezkuntza Laguntzako espezialistak

Aurrean aipatutako zorraz gain langile hauei 2011ko urtarrilaren 1a eta 2015eko abenduaren bitartean gertatutako soldata galerek ere - jasotako ordainsariaren eta %95ra arteko ezberdintasunak direla medio- errekonozituko zaie. Galera horiek irakasleenaren trataera eta kitate berdina izango dute.

Irakasleen diru-zorra

Apirilean amaitu zen enpresek bere langileei haiekin duten zorraren kuantifikazioa egiteko. (2013ko 8tik gaur egun arte. Horiek Ordezkaritza sindikalarekin kontrastatu behar dira kantitateak akatsak egon daitezkeelako.

Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonala

Hurrengo maiatzaren 12an, sare publikoan bere garaian murriztutako eta oraintxe ordaindu den aparteko ordainsariaren zatiarena eta gure hitzarmeneko AZPengan izango duen eragina tratatzeko, CIM-eko bilera egingo da. Litekeena da langile hauek kontu honegatik ere atzerapenak kobratzea

PREST GARA: Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntzarako programa

Gaurko EHAAn dago deialdia. Eskaera telematikoen lehenengo epea, maiatzaren 8tik 24 arte.

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	✉ araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	✉ bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	✉ gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Joaquin Beunza 4-6 behea	31014 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	✉ nafarroa@stee-eilas.org